

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko urriaren 22an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

27.- BERMEOKO UDALARI, BERE ERAKUNDE AUTONOMOEI, BERUALARI ETA BAKE EPAITEGIARI UDALERRIZ KANPOKO POSTA ZERBITZUAK EMOTeko ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Bermeoko Udalari, bere Erakunde Autonomoei, Berualari eta Bake Epaitegiari udalerriz kanpoko posta zerbitzuak emoteko zerbitzu kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 24/1998 Legearen itzaletara, Eudelek-Euskadiko Udalen Elkartek eta Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A.-k ondoz ondoko hitzarmen batzuk sinatu ebezan, azkena 2003ko urtarrilaren 1ean. Hitzarmen horreen karia zan udalek, euren eskumenak aurrera eroateko, Correos y Telégrafos S.A.-k eskubide berezi eta baztertzaile bidez kudeatutako posta zerbitzu horreek erabili ahal izatea.

Bermeoko Udala hitzarmen horreetara atxiki zan eta, horren ondorioz, Correos y Telégrafos S.A. enpresek emoten eutsozan udalerriz kanpoko posta zerbitzuak.

Bigarrena: Abenduaren 30eko, Posta Zerbitzu Unibersalaren, Erabiltzaileen Eskubideen eta Posta Merkaduaren 43/2010 Legeak lehen aitaturako 24/1998 Legea indar barik itzi eban, bertan behera itziz azken horren 18. eta 19. artikuluetan zehaztutako zerbitzuen ganeko eskubide berezi eta baztertzaileak be. Halanda ze, 43/2010 Legeak posta zerbitzuak interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak dirala eta horreek lehia askeko erregimenean emoten dirala xedatzen dau bere 2. artikuluan, Correos y Telégrafos S.A. enpresearen eskumen bakarreko zerbitzuak ziranak be liberalizatuz.

Ondorioz, posta zerbitzu guztien gain lehia askeko printzipioa errespetatzeko beharra sortu da, Eudel-Euskadiko Udalen Elkartearen eta Correos y Telégrafos S.A. enpresearen arteko azken hitzarmena ezohiko luzapen egoeran egoalarik, 2012ko urtarrilaren 1etik. Ezohiko luzapen hori hitzarmenera atxikitako Udalei posta zerbitzuak lehiaketa aske bidez esleitzeko behar besteko denporea emoteko asmo hutsagaz onartu zan.

Hirugarrena: Bermeoko Udalak 2012ko abuztuaren 13an BAOn argitaratutako iragarki bitartez, Bermeoko Udalari, bere Erakunde Autonomoei, Berualari eta

Bake Epaitegiari udalerriz kanpoko posta zerbitzuak emoteko zerbitzu kontratua kaleratu eban.

Laugarrena: Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaituta, Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A. izan da eskaintzea aurkeztu dauen enpresa bakarra.

Bosgarrena: 2012ko irailaren 28an kontratazino mahaia batu zan eta Sociedad Estatal Correos y Telégrafos enpresearen eskaintzea zabaldu ostean, teknikariari eskatu eutson jagokon txosten-proposamen teknikoa egiteko.

Argudioak

Bakarra: Kontratazino mahaiak bialdutako dokumentazinoa aztertuta, egiaztatu egin da Sociedad Estatal Correos y Telégrafos enpreseak aurkeztutako eskaintzeak kontratazino prozedurea arautzen daben Baldintza Tekniko eta Administratiboetan finkautako baldintzak eta esleipenerako erispide guztiak beteten dauzala.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Bermeoko Udalari, bere Erakunde Autonomoei, Berualari eta Bake Epaitegiari udalerriz kanpoko posta zerbitzuak emoteko kontratua Sociedad Estatal Correos y Telégrafos enpreseari ESLEITZEA, aurretiaz, jagokon eran, 3/2011 Errege Dekretu Legegileko 151.2 artikuluan xedatutako errekerimentua egin eta, hori jaso eta hurrengo 10 eguneko epean, Baldintza Administrazioen 20. puntuan zehaztutako agiriak aurkeztuko baleuz.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko urriaren 26an.

ONETSIA
ALKATEA